

HTX LILAKETA

OINARRIAK

Lehiaketa honen helburua emakumeek oholtza gainean duten presentzia sustatzea da, emakumeek osatutako musika taldeak eta emakume musikariak bultzatu asmoz.

1. PARTAIDEAK

Lehiaketan Euskal Herriko taldeek edota jatorri euskal herritarra duten partaideen kopuruak taldearen %75 gainditzen duten taldeek parte hartu ahal izanen dute.

Taldeko partaideen emakume kopurua taldeko partaide guztien erdia izango da, gutxienez. Emakumeen presentzia handiagoak balorazio positiboa dakar.

Aipatu musika taldeek ezin izanen dute diskoetxeren batekin indarrean dagoen kontraturik izan. Autofinantzatutako lan diskografikoak dituzten musika taldeak ez dira kanpo geldituko.

Talde bakoitza izen bakarrarekin aurkez daiteke, nahiz eta taldekideak, maila pertsonalean, beste talderen baten partaide izan daitezkeen.

Aurkezten dituzten abestietan dispertsioaren gaiak duen presentzia positiboki baloratuko da.

Aurkezten dituzten abestietan euskerak duen presentzia positiboki baloratuko da.

2. IZEN EMATEAK

Lehiaketan izen ematea oinarri hauen aurkezpenarekin batera irekitzen da eta 2017ko irailaren 1ean, 13:00ean bukatuko da. Izen ematea info@hatortxurock.eus helbidean egin beharko da.

Izena ematen duten taldeek errepertorioa, taldekideen datuak eta izen ematea egiten duen pertsonaren datuak biltzen dituen inprimakia beteko dute. Inprimaki hau haien korreoari erantzunez bidaliko zaie. Izen ematea baliozkoa izan dadin, derrigorrezkoa da arau inprimakien atal guztiak betetzea.

3. KANPORAKETA FASEA

Antolakuntzak jasotako materialaren bitartez gauzatuko du kanporaketa fasea. Irailaren 1ean jasotako material guztia aztertu ondoren, finalerako sailkatuko diren hiru taldeak hautatuko ditu HATORTXU ROCKek.

4. FINALA

Finalerako sailkatzen diren hiru taldeek, antolakuntzak programatuko duen kontzertu batean, zuzenean, joko dute. Emanaldi bakoitzaren iraupena gutxienez 25 minutukoa eta gehienez 40koa izanen da, iraupen hau gainditzen bada emanaldia eten egingen da.

Epaimahaia bi musikarik eta HATORTXU ROCKeko antolakuntzako kide batek osatuko dute.

5. SARIAK

Lehiaketaren irabazleak 500 euroko saria jaso eta maketa bat grabatzeko aukera izanen du. Antolakuntzak grabaketa egingen den musika estudioa hautatuko luke, baita master kopia edota nahasketa ere. HATORTXU ROCKek bere baliabide guztiak jarriko ditu lan honi behar moduko promozioa egiteko.

6. LEGEA

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko plagiorik, aurkeztutako abestien letra zein musikaren gaineko egile-eskubiderik, ezta legearen beste edozein urraketa ere. Eta, bertsioen kasuan, epaimahaiaren balorazioa baxuagoa izanen da.

7. EKOIZPEN PROPIOA

Musika talde bakoitzak, gutxienez, bere ekoizpeneko 4 abesti aurkeztu beharko ditu eta emanaldiaren gainontzeko denbora bertsioekin osatu ahal izanen du.

8. JARRERA

Lehiaketaren edo HATORTXU ROCKen irudiaren kalterako izan daitekeen jarrera azaltzen duen musika taldea zein taldekidea kanporatzeko eskubidea izanen du antolakuntzak, baita musika taldea

ezohiko edota legez kanpo bozkak lortzen ari den susmoaren aurrean ere.

9. EGILE ESKUBIDEAK

Parte hartzen duten musika taldeek onartu eta egile eskubideak kobratzeari uko egiten diote. SGAr ordainketa eta honen kudeaketa, beharrezkoa izanez gero, musika talde bakoitzak bere gain hartuko du. Antolakuntzak ez du ardura hau bere gain hartuko.

10. ABESTIAK

Abesti guztiak, egile(ak) eta konpositoreen onarpenera eta baimenaren egiaztapen dokumentuekin batera aurkeztuko dira. Egile edota egileen aldetik salaketaren bat egonez gero, taldea bera arduradun bakarra izanen da eta edozein erreklamaziok edota HATORTXU ROCKen edozein defentsa motak ekar lezakeen kostuaren %100 bere gain hartuko du.

11. ESKUBIDEAK

Parte hartzen duten musika taldeek, euren irudi eskubideak eta baimena emango dute abestiak edota kontzertuak komunikabide desberdinetan zabaltzeko, beti ere lehiaketaren garapenaren barruan eta inoiz ez antolaketaren aldetik erabilera komertziala egiteko.

12. OINARRIEN ONARPENA

Lehiaketa honetan parte hartzeak, musika talde parte-hartzaile guztien aldetik oinarrien onarpenera dakar, baita antolaketa batzordearen eta epaimahaiaren erabakien onarpenera, zein hauen kontrako erreklamazio guztiei uko egitea ere. Parte hartzeak, aldi berean, ekitaldiaren ezaugarriak, bere egitura eta antolaketaren onarpenera ere badakar.

13. Antolakuntzak eskubide guztiak erreserbatuko ditu